

Pilota ♦ laz buruz buru erakutsitako dohainak berretsi nahi ditu Arrasateko Uarkapen


Ruizi begira guztiak

Jokin Errastiren kontra ekingo dio Eskuz Banakakoari, gaur

Enekoitz Telleria / Donostia

TXUNDITUTA utzi gintuen iaz Patxi Ruizek Karlos Armenaritzen kontra jokaturako partiduan. Galdutako egin zuen gazteak, baina aspaldian inorri buruz buru ikusi gabeko freskotasuna antzeman zitzaien kantxan Lizarrako atzelariari. Gaur, orduan egindakoa berritzeko eta hobetzeko gai dela erakutsi nahiko du Arrasateko Uarkape frontoian (17:30, Tele 5). Jokin Errasti du kontario. Azkoitiarra ez du une onean harapatu txapelketak. Binakako finala galdu eta bi astera, hain zuzen. Moralez ez dago agian berak nahi bezain fin, baina asko daki pilotan, eta arerioaren urduritasuna baliatzea izango da bere arma nagusia.

Izan ere, behin baino gehiagotan erakutsi du Patxi Ruizek bere burua duela kontrario gogorrena. 20 urte baino ez ditu, eta urte eta erdi baino gutxiago darama profesionalen artean. Aita izan du orain arte botillero, baina Inaxio Errandonearekin ariko da gaurtik aurrera. «Urte guztia arituko nintzateke buruz buru jokatzeko», esan du orain dela gutxi. Beloki, Nagore eta Arre-



EDURNE KOCH

Patxi Ruiz, debutatu berriaren jokaturako partiduan.

txerekin aritu da entrenatzen. Loreak bata besteari atzetik botatzen dizkiote, baina zuhur agertu da. «Errastik asko daki. Zakur zaharra da», dio.

Buruz buruko ederra irten daiteke, baina aurretik ere estelar dotorea dago antolatuta: Unanue-Arretxe eta Tirapu-Armendariz. Unanue da Errastiren botilleroa.

Goñi III.ak irabazi zion Bernari Naxeran

IMANOL AGIRREREN kontra ariko da Fernando Goñi Eskuz Banakako Txapelketako hurrengo kanporaketan. Bernabe Herrero Berna-ri irabazi zion atzo Najeran, bigarren saioko estreinako partiduan (16-22).

Goñik ekin zion atzokari aurretik (0-2), baina bederatzi tanto egin zituen erreskan Bernak (9-2). Gehiago gozatzen zuen eta ihes egindakoak ere alde zituen. Goñiren erreakzioa etorri zen hurrena (9-7). Bere pilotarekin hobeto asmatzen zuen Zubirikoak eta asentatu egin zen kantxan. Ez zuen, ordea, aukera zuenetan arriskatu. Kontrarioak bai. Ihes egin zion berriro (14-9). Fernando Goñik ez zuen inoiz amore eman. Arriskatzen eta tantoak amaitzen hasi zen. Behera egin zuen Bernak, 16-22 bukatu zuten.

Ondoren, omenaldi berroa eskaini zitzaion Eskuz Banakako txapeldu Titin III.a eta Lasa III.ari.

txokoan**Txapelkunak Galarretan, eta Eizagirre Euskalen**

Ezkurra-Imaz txapeldu- nek eta Zeberio II.a-Iriar- tek jokaturako dute gaur Hernaniko Galarretarako partidua nagusia. Euskalen, berriz, Altuna II.a-Aizpuru eta Elizalde-Eizagirre ariko dira. Zein baino zen dotoreagoak biak.

Klubaren Arteko Nafarroako finalak

Nafarroako Klubaren Arteko eskupilota finala jokaturako da gaur (11:00) Iruñeko Labriten: Agesta-Martinez de Eulate eta Yaniz-Begino. Bi atzelariak, Aspek eta Asegarek dauzkate fitxatuta hurrenez hurren, eta Zumarragako finalaren ere aritu ziren atzo.

gaurko partiduenak**ARRASATE. 17:30 (TELE 5, 18:00).**

• Unanue-Arretxe / Tirapu-Armendariz
• Eskuz Banakako Txapelketa: Errasti / Ruiz.

ARAMAIO. 18:00.

• Bigarren mailako buruz buruko kanporaketa: Mendia / Bazeta
• Arteaga-Zubiaga / Telleria-Korta.

OKONDO. 17:30.

• Oregi anaiak / Legorburu-Alonso.

GALARRETA. 16:00.

• Agirresarobe-Urko / Bereziartua-Zestau III.a
• Ezkurra-Imaz / Zeberio II.a-Iriarte
• Altuna II.a-Aizpuru / Inigo-Lizaso
• Kalonge-Etxeberria III.a / Lezea-Mendizabal.

EUSKAL. 16:00.

• Perugorria-Barrenetxea II.a / Iturralde-Badiola
• Altuna II.a-Aizpuru / Elizalde-Eizagirre
• Matxin-A.Lekunberri / Urretabizkaia I.a-Etxabe
• Zeberio I.a-Amenabar / Irizarren-Ekiza.

Izotz-hockeya ♦ Irabazteko zorian egon zen, eta bigarren zatia amaitzen 2-2 jarri ostean, amaieran galdu zuen

Hormadik 4-2 galdu du, baina Rouenen parean arituta

Koldo Alduntzin / Donostia

ROUENEN final-laurdenetako lehen partida galdu arren, Hormadik ondo jokatu zuen atzo, «Ligako azken jardunaldian baino hobeto», esan zigun Gordobil entrenatzaileak. Hirugarren zatia amaitzen hasieran 2-2 zirela, Rouengo jokalariek bati bularrean jo zion pastilak kanpora zihoala, eta ezustean, Raymondoren atean sartu zen.

Handik aitzinera «haiek asko itxi dira, hondarreko zazpi minutuak marra gorritik igaro gabe pasa dituzte, eta golaukerak sortu ditugu, baina ez dugu golik sartu, eta amaitzeko minutu bat gertatzen zela sartu digute lauga-

ren gola; pena izan da», zioen donostiarrak.

2-0 galtzen aritu zirenean, gora egin zuten angeluarrek, eta gai izan ziren 2-2 berdintzeko. Epaileaz ere mintzo zitzaien Gordobil: «Etzerako egin du nabarmen, eta haiek nahi zutena egin zezaketen. Gu lau minutuz aritu gara soilik jokalariek gehiago ginela, eta hala ere, gol bat sartu dugu. Haiek, berriz, sarritan ukan dute egoera hori».

Hauek izan ziren zati bakoitzeko emaitzak: 1-0, 1-2 eta 2-0. Lehen gola aurreneko zatia amaitzeko minutu bat falta zela sartu zuen Roueneko, eta falta bat baliatuta. 3-2 zirela aukera pare bat ukan zuten lapurtarrek,

baina pastila galdu eta ihes egin zuten normadoek. Hormadiko golak Roger Dubek eta Lapinkoskik sartu zituzten.

Beraz, oso gutxigatik galdu zuten lapurtarrek, eta normandoen esperientzia erabakigarria izan zen hein handi batean. «Baina hiru partidara da lehia eta bihar —gaurkoagatik— irabaztera irtengo gara», gehitu zigun Gordobilek. Bestetik, fisikoki Roueneko baino hobeto bukatu zutela esan zigun donostiarrak, eta hormadiari erritmoa hartu ziotela.

Jokalariei dagokionez, Lapinkoskiri hortz bat hautsi zioten, baina gaur arazorik gabe ariko dira.



KOLDO ALDUNTZIN

Hormadiko Oprandi Rouengo Besserekin lehian pastilaz jabetzeko.